

Asisko gutuna

2008ko abendua. 2. printzipioa: Nor bere barrurantz,

apaltasuna

2. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizitzan frantziskotar espiritualtasuna bizi nahi duten laikoei zabaldutako sare soziala da.

Sare honetan parte hartzen dugun lagunok lau printzipio partekatu nahi ditugu. Horietatik hiruk gure eguneroko bizitzari begiratzen diote: harreman/otoitz pertsonala Jainkoarekin, apaltasuna barnera begiratzeko argi gisa, eta solidaritatea kanpora begiratzeko argi gisa. Laugarren printzipioak gonbidatzen gaitu: anaiartea konpartitzera, zerbait elkarrekin jartzera. Hau guztia ahalbidetzeko Asis Sareak bi medio jartzen ditu:

·Hilabete bakoitzaren erdi aldera, gutun hau helaraziko diegu posta- edo email-helbidea ematen diguten guztiei. Hurrenez hurren eta biran-biran, gogoetarako testu baten eta Ebanjelioren eta San Frantziskoren pasartearen irakurketaren bidez, gai batzuk, aipaturiko lau printzipioak landuko dituztenak, garatuko ditugu.

·Hilabete bakoitzeko azken ostegunean, arratsaldeko 19.30ean hileko otoitz topaketa egingo dugu hainbat herritan, otoitz hori hemen eskainitako testuetan inspiratuko delarik. Gutunaren azken aldean ikus dezakezu, abenduan otoitz hau egingo den herrien erreferentzia.

Asis Sarea elkarrekin jartzen dugunok ez dugu talde edo erakunderik osatzen. Besterik gabe, helbide batek lotzen gaitu, hileko gutun hau hartu ahal izateko. Lotura txikitxo horretatik abiatuz, norberak erabakitzen du noraino heldu nahi duen. Ez da ezinbestekoa, adibidez, hileko otoitzean esku hartzea. Parte har daiteke, ala ez, edota pasiboki esku hartu bere zentzua ezagutzeko eta ulertzeko. Asis Sarea irekia dago zuretzat.

Gogoetarako gaia

Abiapuntuetako bat, apaltasuna

Gure garai honetan uste dugu, dena dezakegula, dena geure esku daukagula. Pentsatzen dugu zoriona ekarriko digutela geure autosufizientziak, ondasun materialek, botereak eta arrakastak. Estu eta larri gabilta dena nahi dugulako, denarekin ezin dugulako, geure mugatasunak, behin eta berriz, geure zailtasunen eta geure porrotaren aurrean jartzen gaituelako. Geure buruaren mugak ezkutatu nahian gabilta, eta ez gara honako honetaz konturatzen: izatez garen horrek, falta zaigun horrek, geure sufrimenduak, geure porrotak eta ezinak "humano" izatea ahalbidetzen digutela, besteei konprenitzea eta apal izatea.

Frantziskok, Ebanjelioren bidez, Jesus ezagutzen du eta apaltasunaren altxorra aurkitzen. Erro-erroko aukera egiten du txiki izatearen (minoritatearen) alde, Anaia Txikien Elkarte deitzen dio bere taldeari. Minoritate hitza beste garaietakoa iruditzen zaigu eta nekeza ulertzeko,

baina hain zuzen arrakastan eta ondasun materialetan zoriona aurkitu nahi urdurian gabilta dena gehiago, hartzen du bere zentzu osoa. Txiki denaren bidea hautatzeak, bizitza xumea hautatzeak, ondasunetatik erantzteak bihotzaren libertatea ahalbidetzen digu eta oinarriko dena hurbiltzea.

Dena ahal badugu, dena baldin badakigu, dena baldin bagara, ez dugu ezer behar, ez dugu Jainkorik behar. Dena erregali dugula, dena dohain dugula, mugatuak eta txikiak garela baldin badakigu, Jainkoa dator gurekin topo egitera. Gure apaltasunean, Jainkoak bere maitasuna kokatzen du. Jainkoaren maitasunezko begiradatik bizi gaitzke konfiantzaz, senti gaitzke onartuak eta barkatuak, bakean. Atsedean har dezakegu Harengan, eta Haren begiradatik hurbil gaitzke besteengana, eta elkarrekin aurkitu konfiantza, gupida, bihotz xalotasuna eta alaitasuna.

Ebanjelioko pasarteak: Mt 11, 25-31

Behin batean, Jesus honela mintzatu zen:

-Goresten zaitut, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsu eta ikasiei ezkutatu dizkiezulako eta jende xumeari agertu. Bai, Aita, goretsia zu, horixe izan baituzu gogoko. Nire Aitak nire esku utzi du dena. Eta inork ez du Semea ezagutzen, Aitak baizik; ezta Aita ere ez du inork

ezagutzen, Semeak baizik eta Semeak agertu nahi dionak. Zatozte niregana, nekatu eta zamatu guztiok, eta neuk emango dizuet atsedean. Hartzazue nire uztarria eta ikasi niregandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz ni, eta aurkituko duzue bizitzarako atsedena; eramaneraza baita nire uztarria eta arina nire zama.

San Frantziskoren testua: Aholku espiritualak

13. Pazientzia. Zorionekoak bakegileak, haiek baititu Jainkoak seme-alabatzat hartuko (Mt 5, 9)

Jainkoaren zerbitzariak ezin du jakin zenbaterainoko pazientzia eta apaltasuna duen, dena bere gogara doakion bitartean. Baina atsegin eman behar lioketenek atsekabe ematen diotenean, zenbaterainoko pazientzia eta apaltasuna agertzen duen orduan, horrenbestexa du eta ez gehiago.

19. Jainkoaren zerbitzari apala

Zorionekoa bere burua hobetzat ez duen zerbitzaria jendeak handiesten eta goratzen duenean, kaskar, simple eta mespretxagarritzat daukanean baino, zeren eta gizakia Jainkoaren aurrean zenbat den, hainbestexa da eta ez gehiago.

Salmoa: 131 (130)

Jaunaren eskuetan bakean

Jauna, nire bihotza ez da handi-min,
ez nire begiak gorazale;
ez nabil gauza handien atzetik,
ez neurritz gainekoen atzetik.
Isil eta bare dut barne-gogoa;
haurtxoa amaren altzoan bezala,
haurtxoa bezala dut barnean gogoa.
Israel, izan Jaunarengan itxaropen.

Gutuneko azken hitzak

Apaltasuna honetan datza: nork bere ahulezia eta mugak ezagutzean eta ezagutza horren arabera jokatzean.

Oharrak:

Abenduko elkarrekiko otoitzaldia 26an, ostiralean, 19.30ean egingo da, honako toki hauetan: Beasain (San Martin parrokia), Bermeo (Frantziskotarren komentua), Bilbo (Iralako frantziskotarren parrokia), Donostia (Frantziskotarren parrokia), Gernika (Asisko Frantziskoren parrokia), Iruñea (Asisko Frantziskoren parrokia), Gasteiz (Frantziskotarren etxea – Castillo Villamonte, 2), Tolosa (Klarisen komentua), Zarautz (Santa Klarako eliza), Zegama (Parrokia).

Asis Sareari buruzko informazioa hartu nahi izanez gero, edo gutun hau hileroko hartzeko izena emateko, deitu 646-214896 telefono zenbakira edo bidali mezua asissarea@arantzazu.org helbide elektronikora.

Asis Sarearen ezaugarri nagusia da irekia izan nahi duela eta bere asmoa biderkatzea. Irekitasun hau sarean parte hartzen dugun bakoitzari egitea dagokigu. Guztiok biderka dezakegu Asis Sarea, hileroko-hileroko lagun berri bat gonbidatuz Gutun hau jasotzera edo hileroko otoitzaldian parte hartzera.



2009ko urtarrileko eguneroko ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate urtarrileko erreferentzia guztiak:

1 Lk 2, 16-21	8 Mk 6, 34-44	15 Mk 1, 40-45	22 Mk 3, 7-12	29 Mk 4, 21-25
2 Jn 1, 19-28	9 Mk 6, 45-52	16 Mk 2, 1-12	23 Mk 3, 13-19	30 Mk 4, 26-34
3 Jn 1, 29-34	10 Lk 4, 14-22a	17 Mk 2, 13-17	24 Mk 3, 20-21	31 Mk 4, 35-41
4 Jn 1, 1-18	11 Mk 1, 6b-11	18 Jn 1, 35-42	25 Mk 1, 14-20	
5 Jn 1, 43-51	12 Mk 1, 14-20	19 Mk 2, 18-22	26 Mk 3, 22-30	
6 Mt 2, 1-12	13 Mk 1, 21-28	20 Mk 2, 23-28	27 Mk 3, 31-35	
7 Mt 4, 12-17. 23-25	14 Mk 1, 29-39	21 Mk 3, 1-6	28 Mk 4, 1-20	